



7. Funtsezko baliabideak

Proiektuaren arrakasta baliabide, aliantza eta gaitasunen sinergia estrategiko batean datza, bruxismoa tratatzeko gailu eraginkor bat bermatzeko. Sentsorearen diseinu fidagarria eta hortzak estutzean egiten den presioa intuizioz aztertzen duen aplikazio osagarri bat oinarritzakoak dira pazienteentzat zein osasun profesionalentzat irtenbide zehatza eta praktikoa eskaintzeko. Gure balio proposamenaren oinarria gailuaren kalitatea da, neurketa zehatzak eta funtzionaltasun eskuragarriak ziurtatuz.

Gainera, teknologia aurreratuko hornitzaileekin, software garatzaileekin eta gailu mediko espezializatuen fabrikatzaileekin egindako aliantza estrategikoek, dentisten eta ortodontzisten lankidetzarekin batera, produktua baliozkotzea eta onartzea ziurtatuko dute. Marketing estrategia eraginkor batek bruxismoaren arriskuen gaineko kontzientzia sortuko du, eta gure irtenbidea berritzaile eta irisgarri gisa kokatuko du. Osagarri gisa, saldu osteko kalitatezko euskarri batek bezeroaren gogobetetzea sustatuko du, fidelizazioa eta gomendioak sustatuz, elementu horiek ezinbestekoak baitira proiektuaren hazkunde jasangarrirako.

Balio eskaintza garatzeko funtsezko elementuak

Gure enpresari bere balio eskaintza garatzea, bezeroengana iristea, haiekin harremanak izatea eta diru sarrerak sortzea ahalbidetzen dioten elementuek hainbat baliabide eta gaitasun barne hartzen dituzte.

Lehenik eta behin, kalitate handiko produktu bat fabrikatzea eta entregatzea ahalbidetzen duten baliabide fisiko eta teknologikoak ditugu. Sentsorearen diseinua, datuak biltzeko sistema eta hura garatzeko eta banatzeko azpiegitura ezinbestekoak dira. Baliabide intelektualak eta giza baliabideak ere baditugu. Horien artean, sentsoreen garapenean, analisi klinikoan, odontologian eta marketinean adituak diren talde bat dago, eta horiek ideia berritzaileak erabiltzaileen osasuna eta bizi kalitatea hobetzen duten soluzio praktiko bihurtzen dituzte.

Bestalde, banaketa sareek eta salmenta kanalek bezeroengana modu eraginkorrean iristea ahalbidetzen digute. Hortz kliniketatik hasi eta merkataritza elektronikoaren plataformetaraino, kanal horiek produktua gure erabiltzaileen eskura egotea ziurtatzen dute.

Azkenik, diru iturrien aniztasunari esker (gailuaren salmenta, app-aren harpidetzak eta osasun profesionalentzako lizentziak), finantza egitura iraunkorra izango dugu denboran zehar.



Baliabide nagusiak kategoriaren arabera

- **Baliabide fisikoak:** sentsorea eta datuak biltzeko sistema dugu, mikro sentsore batez eta erloju batez osatua. Horrez gain, fabrikaziorako, frogetarako eta produktua garatzeko espazioak ditugu, baita sortutako datuak prozesatzeko eta gordetzeko azpiegitura teknologikoa ere.
- **Baliabide intelektualak:** gure teknologia patentatuak sentsoreak eta analisi aurreratuko softwarea konbinatzen ditu. Gainera, odontologian eta bruxismoan ezagutza sakona dugu, baita datuak interpretatu eta gomendio pertsonalizatuak sortzen dituzten adimen artifizialeko algoritmoak ere. Gailu medikoen diseinuan pilatutako esperientzia da gure beste indargune bat.
- **Giza baliabideak:** diziplina anitzeko taldeak ingeniari elektronikoak, programatzaileak eta diseinatzaileak ditu, sentsorearen eta app-aren garapenaz arduratzen direnak. Hortz osasuneko profesionalekin ere lan egiten dugu, gailua baliozkotzeko eta haren sustapenean laguntzeko.
- **Finantza baliabideak:** hasierako inbertsioa 180.000€-koa izango da, eta ikerketa, garapena, ekoizpena eta produktuaren merkaturatzea finantzatzeko balioko du. Aurreikusitako diru sarrerak, nagusiki, gailuaren salmentatik (%70), app-eko harpidetzetatik (%20) eta lizentziatik (%10) etorriko dira.

Oinarrizko baliabide ukigarriak eta ukiezinak

Baliabide ukigarrien artean, hauek nabarmentzen dira: teknologia berritzailea sentsoreetan eta aplikazio mugikorretan, gailua diseinatzeko eta ekoizteko azpiegitura fisikoa eta banaketa sare fidagarrietarako sarbidea hortz klinikei saltzea errazteko.

Baliabide ukiezonei dagokienez, esperientzia tekniko sendoa dugu elektronikan, odontologian eta datuen analisian. Halaber, harreman estrategikoak ezarri ditugu aho hortzetako osasunaren hornitzaile eta profesionalekin, eta bruxismoa prebenitzeko irtenbide fidagarri, moderno eta eraginkor gisa posizionatzeko diseinatuta dago gure marka. Gainera, merkatuaren beharretara egokitze gaitasuna dugu, gailua bezeroen feedbackaren arabera eguneratuz.

Proiektu honek baliabide ukigarriak eta ukiezinak modu estrategikoan konbinatzen ditu, haien eragina maximizatzeko. Sentsorearen diseinuan erabiltzen den puntako teknologiatik hasi eta odontologia eta teknologiko adituekin ditugun aliantzetaraino, gure proposamenaren alderdi bakoitza bezeroarentzako balioa sortzera bideratuta dagoela ziurtatu dugu. Berrikuntzarekin eta etengabeko garapenarekin dugun konpromisoak, baliabide estrategia sendo batekin batera, bruxismoa hautemateko eta prebenitzeko lider gisa kokatzen gaitu. Esperientzian, kontaktu estrategikoetan eta trebetasun teknikoetan inbertitzea izango da irtenbide berritzaile horren bideragarritasuna eta arrakasta bultzatuko dituen motorra.